

LEHIAKETA

ARETXABALETAKO GENEALOGIA FEMINISTA



Aretxabaletako
Udala

ERDU Talde Feminista

"Aretxabaletako genealogia feminista"

lehiaketaren deialdia

Aretxabaletako Udaleko Berdintasun sailak eta Erdu talde feministak "Aretxabaletako genealogia feminista" lehiaketa antolatu dute.

Xedea: Deialdi honen xedea Aretxabaletako emakumeen* eta feministen historiaren inguruko ikerketa egitea da. Aretxabaletako historia zein memoria historikoa gizonezko garaileen ikuspegitik kontatu izan dira, eta Aretxabaletako memoria kolektiboan ez da azterna feministarik ageri. Hori dela eta, historia osatzeko asmoarekin, mugimendu feministaren, emakume* aitzindarien eta feministen informazioa lortu nahi da.

Gaia: Ikerlanaren gaia Aretxabaletako emakumeen* eta feministen historia izango da. Ikerketak gutxienez honakoak jaso beharko ditu:

- Aretxabaletako genealogia feministaren ibilbidearen eta historiaren bilketa.
- Emakume* talde, profesio edo norbanakoen datu eta erreferentziak.

* Etorkizunean, lehiaketa honen xede den lana bukatu ondoren, Aretxabaletako Berdintasun batzordean ikerlanaren edukiak zabaltzeko aukerak aztertuko dira.

Aurkeztu beharrekoa:

- Eskaera orria, beteta (I. Eranskina).
- Lan proposamena, ikertu nahi den horren laburpena, ideiak eta ildo nagusiak azaltzen dituen. Proposamen horrek 3-6 orri bitarteko luzera izan beharko du eta aurpegi bakarrean idatzita egongo da, Arial 10 letrarekin eta 1,5eko lerroartearekin.

Lan proposamenak honako atalak izan behar ditu:

- Ikerketa gaien zerrenda laburtua edo jasotako informazioaren puntu nagusiak.
- Ikerketa eta informazio bilketa egiteko lan metodologia.

Hautaketa: Berdintasun batzordeko zenbait kidek eta herriko zenbait pertsonak osatuko dute epaimahaia. Jasotako proposamenak aztertu eta bakarra aukeratuko da ondorengo ikerketa egiteko.

Irabazlea: Lehiaketan proposamen onena aurkeztzen duena izango da irabazlea. Pertsona horrek ikerketa lana egin beharko du, eta saria ikerlana entregatu eta gero jasoko du.

Saria: Irabazleak 1.500€-ko saria jasoko du ikerketa lan osoa entregatu eta gero. Diru kopuru hori jaso ahal izateko, aurkeztutako lanak gutxieneko kalitate irizpideak betetzen dituela erabaki beharko du epaimahaia.

Betekizunak:

- Egilea 2005 urtean edota lehenago jaiotako emakumea* izatea.
- Ez da ezinbestekoa izango Aretxabaletakoa edo eskualdekoa izatea, baina baloratu egingo da.
- Pertsona bakoitzak gehienez 3 proposamen entregatu ahal izango ditu.
- Lan proposamenak **berdintasuna@aretxabaleta.eus** helbidera bidali beharko dira.
- Lan guztiak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira.
- Bukaeran aurkeztutako ikerlanak bat etorri beharko du aurretik egindako proposamenarekin. Horrela izan ezean, lehiaketa hutsik gera daiteke.

Kontuan hartu beharreko datak:

- Lan-proposamena **urriaren 4ko 23:59ak** baino lehen bidali beharko da helbide honetara: **berdintasuna@aretxabaleta.eus**
- Proposamen irabazlea **urriaren 18an** jakinaraziko da.
- Ikerketa lana **abenduaren 27ko 23:59ak** baino lehen entregatu beharko da helbide honetan: **berdintasuna@aretxabaleta.eus**
- Saria urtarilean emango da.

